

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
42/2008	R5/2009	2009/03/06	Bizkaiko Foru Aldundia eta Andaluziako Junta	Zergaduna	Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Gatazkarik ez izatea

R 5/2009 ebazpena

42/2008 espedientea

Gasteizen, 2009ko martxoaren 6an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna batzordeburu dela eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador jaunak batzordekide direla, honako erabaki hau hartu du:

ERABAKIA

1 ZERGADUN jaunak bere aita 2 ZERGADUN jaunaren heriotza dela-eta planteatutako gatazkari buruzkoa. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da 42/2008 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1. Arbitraje Batzorde honen erregistroan 2008ko urriaren 6an sartu zen 1 ZERGADUN jaunak aurkeztutako idazkia. Idazki horretan azaltzen diren aurrekariak, laburbilduta, honako hauek dira:

- 1) 1997ko uztailaren 18an, 2 ZERGADUN jauna Almeriako UDALERRIAN hil zen.
- 2) 1998ko uztailaren 10ean Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga likidatu zen Bizkaiko Foru Aldundian.
- 3) 1999ko martxoan Bizkaiko Foru Aldundiaren jakinarazpena jaso zen. Bertan adierazi zen Bizkaiko zerga bulegoak ez zuela eskumenik aipatutako jarauntsia likidatzeko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
42/2008	R5/2009	2009/03/06	Bizkaiko Foru Aldundia eta Andaluziako Junta	Zergaduna	Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Gatazkarik ez izatea

4) Erabaki horren aurka administrazioarekiko diru-erreklamazioa jarri zen Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, eta horrek ebazpen baieslea eman zuen 2000ko urtarrilaren 25ean; beraz, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumena dekretatu zuen.

5) 1999ko apirilean, Andaluziako Juntako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Almeriako Ordezkaritzak 1 ZERGADUN jaunari aitaren jarauntsiarekin zerikusia zuten agiri batzuen errekerimendua egin zion, eta geroago, 2001eko martxoaren 20an, beste errekerimendu bat egin zion. Bi errekerimenduekin batera, Bizkaiko FAEaren aipatutako ebazpena igorri zion.

6) 2002ko martxoaren 19an, 1 ZERGADUN jaunak Andaluziako Juntako Ekonomia eta Ogasun Saileko Zergen eta Zerga Ikuskapenaren zuzendari nagusiaren jakinarazpena jaso zuen. Bertan adierazi zen 2002ko otsailaren 27an Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eskumen gatazka aurkeztu zuela Arbitraje Batzordean, eskumena berari zegokiola uste izateko zantzuak eta inguruabarrak bazirelakoan.

7) 2004ko azaroaren 12an Almeriako Ordezkaritzaren jakinarazpena jaso zen. Horren bidez, 1 ZERGADUN jaunari jakinarazi zitzaion ikuskapen-jarduketak hasi zirela, ondorioz oinordetzen behin-behineko likidazioa egin zela, likidazio hori ez zela ordaindu, ondorioz premiamendu prozedurari ekin zitzaiola eta horren barruan zenbait enbargo-eginbide eman zirela.

8) Hainbat prozedura tramitatzen ari dira Andaluziako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salan (Granadako egoitza): ikuskapen jarduketan ondorioz egindako likidazioaren aurka, likidazioaren betearazpena eteteko pieza bananduaren aurka, eta bilketa-prozeduran emandako premiamendu-probidentzien aurka.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
42/2008	R5/2009	2009/03/06	Bizkaiko Foru Aldundia eta Andaluziako Junta	Zergaduna	Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Gatazkarik ez izatea

2. Bere idazkiko eskaeren atalean, 1 ZERGADUN jaunak Arbitraje Batzorde honi eskatu dio izapide egokiak egin eta gero honako hau erabaki dezala, laburbilduz:

a) 1760/2007 Errege Dekretuan ezarritako izapideak hastea, Andaluziako Juntak 2002ko otsailaren 27an Bizkaiko Foru Aldundiaren aurka jarri duen eskumen-gatazka dela eta.

b) 2 ZERGADUN jaunaren jarauntsiari eta zehazki 1 ZERGADUN jaunari dagokion Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga dela-eta 2002ko otsailaren 27tik gaur arte Andaluziako Juntak egindako jarduketa guztiak (ikuskapenak, kudeaketak eta beste edozein) baliorik eta ondoriorik gabekoak direla adieraztea.

c) Andaluziako Juntari eta Bizkaiko Foru Aldundiari agintzea berehala eten ditzatela 2 ZERGADUN jaunaren jarauntsiari dagokion Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga dela-eta 1 ZERGADUN jaunari egindako jarduketa guztiak, kudeaketakoak, ikuskapenekoak zein bilketakoak, eta preskripzio epeak eteteko bakar-bakarrik balio ez duen edozein jarduketa edo egintza zuzenbide osoz deuseza izango dela ohartaraztea.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Argitu beharra dago Arbitraje Batzordeak ezin duela ofizioz gatazkarik planteatu. Beraz, ezin dio inongo gatazka izapidetzeari ekin, 1 ZERGADUN jaunak eskatu duen bezala. Gatazka alderdi batek eskatuta hasten dira beti. Abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak ez du aurreikusten partikularrek eskumen-gatazka planteatzeko aukerarik. Hain zuzen ere, dekretu horren 9. artikulua xedatzen duenez, gatazka (gatazka positiboa, alegia) Estatuko Administrazioak, foru aldundiek, autonomia erkidego batek edo Ekonomia Itunean aurreikusita dagoen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
42/2008	R5/2009	2009/03/06	Bizkaiko Foru Aldundia eta Andaluziako Junta	Zergaduna	Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga. Gatazkarik ez izatea

Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak baino ezin dute planteatu. Ildo beretik Auzitegi Gorenak 2006ko abenduaren 12ko epaian adierazi zuen ezen, Nafarroako 1969ko Hitzarmen Ekonomikoaren 19.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, partikularrek ez dutela gatazkak planteatzeko eskubiderik. Horrela berretsi egin zuen Auzitegi Ekonomiko Administratibo Zentralak 1997ko apirilaren 23ko ebazpenean eta Auzitegi Nazionalak 2001eko ekainaren 1eko epaian erabili zuten irizpidea. Beraz, zergaduna gatazka positibo batean pertsonatu ahal izateko, alde zuzenetik gatazka hori planteatu behar du gorago aipatutako eskubidedunetarikoko baten baten.

Aztergai dugun kasuan orain arte ez dute horrela egin ez Andaluziako Autonomia Erkidegoak ez Bizkaiko Foru Aldundiak. Egia da espedientean Andaluziako Juntako Ekonomia eta Ogasun Saileko Zergen eta Zerga Ikuskapenaren zuzendari nagusiaren idazki bat dagoela eta bertan adierazten duela 2002ko otsailaren 27an Bizkaiko Foru Aldundiarekiko eskumen-gatazka planteatu zuela, eskumena berari zegokiola uste izateko zantzuak eta inguruabarrak bazirelakoan; baina Arbitraje Batzorde honetan ez dago jasorik ustezko gatazka horren berririk. Ez dakigu zergatik, baina kontua da Andaluziako Juntak bere jarduketak egiten jarraitu duela, ustezko gatazka ebatzi arte itxaron beharrean. Gaur arte administrazio batek ere ez du planteatu eskumen-gatazkarik aipatutako jarauntsiagatik, eta hori gertatu arte Arbitraje Batzorde honek ezin du eskumen-gatazka positiboa planteatu denik onartu; hori gertatzen denean bai, 1 ZERGADUN jauna interesduna izango da, hala badagokio.

Horrenbestez, Arbitraje Batzordeak hauxe

ERABAKI DU:

Arbitraje Batzorde honi ez zaionez behar den moduan inongo gatazkarik planteatu, ez da bidezkoa 1 ZERGADUN jaunak azaldutako uziei buruz ezer erabakitzea.